

URRUZUNOTARRAK GEHITUZ 2019 LITERATURA-EKIMENA.

Aurtengo Literatura-ekimenean Gernika BHIko bi ikasle sariatuak izan ziren. Honegatik, Irailaren 2tik 6ra Literatura-egonaldia Zugarramurdiko GRAXIANA aterpetxean burutu dute. Hona hemen bertan izandako Kattalin Urrengoetxea Uribarriren testigantza.

Ezin azal ditzaket 4 egun hauetan bizitako esperientzia izugarri danak. Hitz ederrak baño ez datorzkit burura, baita nostalgia puntu bat ere. Hau, ordea, txikitzen doa Zugarramurdira joan nintzenekoa baño pertsona aberatsago izaten bueltatu naizela gogoratzearekin bat. Ez al da ederra hobby berdiña konpartitzen dugun pertsonen artean soilik begiradekin magia sortzea?

Bizitzan aurrera eginez baina, esnedun txokolatea jatea nahiago dugula argi izanez eta horizontalean ea zergatik ez dugun bertigoa sentitzen azaldu eziñik (istorio hauek beste baterako utziz) bertan hasi baña oraindik denbora luzez iraungo duten lagunarteko adiskidetasun berriak daramatzat bihotzean.

Ezin ninteke harroago egon bizitzak oparitu didan esperientzia hau bizitzeko aukeraz.

Kattalin Urrengoetxea Uribarri.

ARGAZKIAK: Zugarramurdikoak

SARI BANAKETA EKITALDIA LAKUAN.

- Zugarramurdin 5 eguneko literatura-egonaldia egin ondoren, Hezkuntza Sailak harrera egin die irabazleei gaur Lakuan
- Saritutako lanekin liburua argitaratu du Eusko Jaurlaritzak, eta eskola guztietara bidaliko da aurki

2019ko *Urruzunotarrak Gehituz* literatura ekimenean irabazle izan diren 20 neska-mutil gazteek Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan gaur eguerdian jaso dute aitortza, Maite Alonso Hezkuntza sailburuordea eta Lucia Torrealday Hezkuntza Berriztatze zuzendaria

buru zirela ospatu den ekitaldian. Bost egunez Zugarramurdiko Graxiana aterpetxean egonaldia egin ondoren iritsi dira gazteok Gasteizera. Izan ere, irailaren 2an hasi eta gaur arte, sormena lantzeko tailerretan eta beste hainbat jardueratan parte hartu dute gazteok, berriro ikasturteari heldu aurretik elkarrekin egun gogoangarri batzuk pasatzeko aukerari uko egin gabe. Egonaldi horixe izan dute irabazleek sari nagusia. 34. ediziora iritsi da aurten gazteen literaturzaletasuna bultzatzeko Hezkuntza Sailak 1986tik antolatzen duen lehiaketa.

Literatura egonaldia Zugarramurdin

Bost egunez, lagun izan dituzte Zugarramurdiko egonaldian Yolanda Arrieta, Jon Martin, Fernando Morillo eta Itxaro Borda, besteak beste. Idazle, musikari eta sortzaile hauekin gertuko eta zuzeneko harremana izan dute gazteek. Arrietaren eskutik, literatura tailerretan parte hartzeko aukera izan dute, eta Jon Martinekin, berriz, afalosteko musika-emanaldietan. Baina aipaturiko horiez gain, Amets Arzallus eta Sustrai Colinak alaituriko bertso afaria eta gaubela literarioak ere izan dira aste honetako egitarauan. Sormena lantzeko eta literatura-zaletasuna pizteko abagune polita gazteontzat, ikasketetara itzuli aurretiko azken opor egun oparoetan.

Zugarramurdi eta inguruak ezagutzeko tarterik ere izan dute, dena den, azken bost egunetan. Bestak beste, Lapurdiko kostaldeko hondartzetara irteera, eta Zugarramurditik Sararako bidea –Xareta ibilbidea deritzona- oinez egiteko beta ere izan dute. Asteazken goizerako berriz, bisita interesgarria zuten antolatuta. Baionako kaleetan zehar ibilbide literarioa egin zuten, gidari ezin egokiago bat lagun zutela: Itxaro Borda idazlea.

2019ko *Urruzunotarrak Gehituz* literatura-ekimenean 175 lan aurkeztu dira orotara, 37 lan poesian eta 138 prosan. Ohi den eran, egungo euskal literaturan eta kultur munduan entzute handikoak diren izenek osatu dute aurten ere *Urruzunotarrak Gehituz* ekimenaren epaimahaia: Gari Berasaluze, Peru Iparragirre, Goiatz Labandibar, Jasone Osoro eta Patxi Zubizarreta izan dira epaimahaikide.